



ETXEBARRIA

ETXEBARRIAKO UDALA

INGURUMEN MEMORIA PLANAREN PROPOSAMENETAN TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

2020
Otsaila



HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA



Sustatzailea



ETXEBARRIAKO UDALA

Erredaktore taldea



1. KAPITULUA.- HASIERAKO DOKUMENTUA ETA ALDEZ AURREKO KONTSULTAK. ...	1
1.- Aurretiako azterketak, aurre-aurrerakina eta hasierako dokumentua.	1
2.- Aurrerakina.....	2
2. KAPITULUA.- KONTUTAN HARTU BEHARREKO ERREFERENTZI-DOKUMENTUAREN LABURPENA.	3
1.- Erreferentzi-dokumentuarekin bat zetozten alternatibak.	3
2.- Erreferentzi-dokumentuarekin bat ez zetozten alternatibak.	3
3. KAPITULUA.- INGURUMEN JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA.	4
1.- Kontutan hartu beharreko erreferentzi-dokumentua.	4
1.1.- Aurrekariak eta egindako kontsultak.	4
1.2.- Planari aplikatu beharreko iraunkortasun-printzipioak, ingurumen-helburuak, ingurumen-irizpide estrategikoak eta adierazleak.....	6
1.3.- Plan Orokorraren proposamenen ingurumen-analisia.....	6
1.4.- Ebaluazio eremuko baliabide, ingurumenaren ikuspegitik aipagarriak diren area eta ingurumen-arazoak.	11
1.5.- Ingurumen-azterlan Estrategikoaren norainokoa eta xehetasun nahiz zehaztapen maila.	12
1.6.- Informazio eta kontsulta modalitateak.....	13
2.- Antolamenduaren xede den eremuaren arrisku naturalen mapa.	13
3.- Planean jasotako aurreikuspenak hartzeko lurzoruen ahalmena.	13
3.1.- Administrazio hidraulikoaren txostena.	13
3.2.- Errepide eta dauden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioen txostena.....	14
4.- Hasierako onarpeneko dokumentuan sartutako neurri eta zuzenketak.	14
5.- Neurrien justifikazio xehatua eta balorazioa garapen iraunkorraren ikuspegitik.	14
4. KAPITULUA.- KONTSULTA-IZAPIDEA.	15
1.- Ingurumenari buruz kontsulta-izapidean izandako alegazioak.	15
1.1.- Sección de Producción Vegetal del Servicio Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia.	15
1.2.- Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-Berroneratze Zuzendaritza.	15
2.- Administrazio eta beste erakunde batzuegandik jasotako erantzunak.....	18
2.1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Zuzendaritza Nagusia.....	18
2.2.- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.....	18
2.3.- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.....	19
2.4.- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.....	19
2.5.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.....	20
2.6.- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.....	20
2.7.- IHOBE.....	21
2.8.- Red Eléctrica de España.....	21
2.9.- Dirección General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.	21
2.10.- Agencia Vasca del Agua - URA.	22

5. KAPITULUA.- INGURUMEN MEMORIA.....	24
6. KAPITULUA.- AZKEN ONDORIOA.....	25

1. KAPITULUA.- HASIERAKO DOKUMENTUA ETA ALDEZ AURREKO KONTSULTAK.

1.- Aurretiako azterketak, aurre-aurrerakina eta hasierako dokumentua.

Etxebarriko HAPO idazten hasteko lehen urrats moduan, 2015eko urtarrilean aurre-aurrerakin bat aurkeztu zen ondoko xedearekin:

1. Udalerriko ingurumen baldintzapen nabarmenenak aztertu eta landu.
2. Udalerriko gaur egungo hirigintza ikuspegiko egoerari buruzko laburpen edo diagnosi bat landu; baita ere lurralde araudiarena, esateko, Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze Lurralde Arloko plana (LAP), Itsasertza Babestu eta Antolatze LAP, Nekazaritza eta Basogintzarako LAP, Hezeguneen LAP Jarduera Ekonomikoetarako LAP, Bizkaiko Errepideen LAP edo Gernika-Markina Eskualde Egiturako Lurralde Zatikoa Plana (LZP), azken hau tramitatzen ari dena, udalaren hirigintza jarduketaren bilakaera bezalako funtsezko ikuspegiak aztertuz.
3. Udalerriko hirigintza, soziologi eta ekonomiari buruzko informazioak aztertu eta sintetizatu, ondoko ikuspegiei buruzko ondorioak ateraz: etxebizitza, jarduera ekonomikoetarako esparruak edo ekipamenduak (kirol, hezkuntza, osasun, kultura eta abar).

Azken finean, dokumentu hau Etxebarriko HAPO idazteko lehen urratsa izan zen eta balio zuen bai herritarren parte-hartzerako beharrezko diren datuak lortzeko, bai bere garaian hartuko diren irizpide eta konponbideak informatu eta motibatuz.

Bere edukiari zegokionez, dokumentu integratu eta koherentea zen, elkarri lotutako edukia zuena, baina banakatu zitekeena ondoko bi bloke hauetan, beharrezkoa balitz, bakoitza bere aldetik tramitatuz:

1. BLOKEA: SARRERA ETA ISPASTER UDALERRIAREN ANALISIA. Udalerriari buruzko diagnosi bat eskaintzen zuen, maila guztietan. Berarekin batera INDARREKO ASen TESTU BATEGIN bat zetorren. Bertan hartzen zen arauak izan dituzten aldaketa guztien ondorio diren indarreko araudi guztia eta dokumentazio grafikoa.
2. BLOKEA: ETXEBIZITZA ERABILERAREN ANALISI XEHATUA. Bizitegi erabilaren funtzio, forma eta ekonomia ikuspegiak aztertzen zituen era xehatuan.
3. BLOKEA: INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKORAKO HASIERAKO DOKUMENTUA. Lege aldetik, planaren ingurumen azterketarako hasierako dokumentu bezala balio izan du, era horretan, ingurumen organoak Aurrerakinarekin batera zetorren ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenaren oinarria izango zen bere erreferentziako dokumentua eman zezan.

Erreferentziako agiri honek informazio aipagarria zekarren ondoko ikuspegiei buruz:

- Helburu estrategikoak, jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak, eta araudi aplikagarriak.
- Ingurumen-ebaluazioaren eremu geografikoa.
- Eremu aipagarriak ondo zehaztea, ingurumen ikuspuntutik, kartografiarekin.
- Erakunde eta herritar interesatuei egindako kontsulten emaitza.
- ISTk kontutan hartu behar dituen ikuspegi nagusiak eta funtsezko alderdien definizioa.
- Natura 2000ko izan daitezkeen eraginak.
- IJTn kontutan hartu beharreko adierazleak.

- Aurrerantzean kontsultatu beharreko herri-administrazio eta publiko interesatuaren identifikazioa.

Hurrengo urrats bezala, Etxebarriko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerakin dokumentua idatzi zen.

2.- Aurrerakina.

Aurrerakinak ezarri beharreko antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazten zituen etorkizuneko HAPO idazketarakoan orientabide izateko.

Bere onarpenak barruko administrazio-eragina izan zuen; ez zuen suposatu izatez finkatutako hirigintza-antolaketa baten onarpen egintza administratibo bat.

2017ko apirilaren 24ko alkatetza dekretu bidez (83 zk. BAO, 2015-05-03koa) udalak jendaurrean jartzea erabaki zuen bi hilabetez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Udal mugakideetara ere bidali zen (Markina-Xemein, Mendaro eta Elgoibar), ezagutu zezaten.

Bere edukia azaltzeko jendaurreko bilkurak egin ziren, batez ere antolaketari buruzko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko. Izan ziren ere elkarrizketak hala eskatu zuten pertsona guztiekin. Jasotako iradokizunak erredaktore taldearen 2017ko abuztuaren 14ko txostenean aztertu ziren.

Aurrerakinak erredaktore taldeak eta udalbatzako ordezkariak aztertutako aukerak hiritarren irizpideekin kontrastatzeko balio izan zuen.

Kontraste honetatik irizpide berriak lortu ziren HAPO dokumentu honen edukia oinarritzeko.

2. KAPITULUA.- KONTUTAN HARTU BEHARREKO ERREFERENTZI-DOKUMENTUAREN LABURPENA.

1.- Erreferentzi-dokumentuarekin bat zetozen alternatibak.

Aurrerakin dokumentua, bere hasierako dokumentuarekin, eta Aurrerakina administrazio eskudunera bidali ziren bere Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa tramitatzeko.

Funtsean, Aurrerakinean jasotako hautabideak (Plan honen informazio memorian azaltzen dira zehatzago) hasierako dokumentuaren arabera egin ziren.

2.- Erreferentzi-dokumentuarekin bat ez zetozen alternatibak.

Ez ziren egin.

3. KAPITULUA.- INGURUMEN JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA.

1.- Kontutan hartu beharreko erreferentzi-dokumentua.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ingurumen organoaren abenduaren 21eko 6322/2018 Foru Agindu bitartez emandakoa da. Bere edukiaren laburpen bat Plan honen informazio memorian jasotzen da.

Irismeneko dokumentu honek (ID) dokumentu honetarako erredaktore-taldeak Ingurumen Azterlan Estrategikoa (IAzE) egin ahal izateko informazioa eta erreferentziak dakartza.

1.1.- Aurrekariak eta egindako kontsultak.

Aurrekariak adierazten eta Aurrerakinaren proposamenen laburpen bat egiten hasten da.

Ondoren, IEE prozedura hasteko Etxebarriko Udalak aurkeztutako eskaerarekin batera Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurraldearen Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiaren txostenean adierazitako ikuspegiak aipatzen diru:

- Organo substantibo izaera dute ingurumen prozeduran, Hirigintza planaren behin betiko onarpena baitagokie.
- Aurrerakinak ez ditu jasotzen gaur egun tramitatzen ari diren aldaketa espedienteen proposamena: eskola gunea, Fagor-Arrasate eremua eta Nemark eremua.
- Hiri-lurzoru bezala sailkatutako lurzoru batzuk (bizitegirako Txoribenta eta Aulesti industriakoa) ez dute betetzen 2/2006 Legeak ezarritako baldintzak hiri-bilbearekiko bere integrazioari dagokionez, eta uste da desailkatu beharko lirakeela.
- Hiri-bilbearen iparraldean kokatutako bizitegirako lurzoru batzuk, finkatutako hiri-lurzoru bezala sailkatuak, ez dute izan urbanizatzeko prozedurarik lurzoru urbanizaezinetik.
- Eremuak beste zailtasun batzuk ditu (bere bide sarea ez da nahiko). Beraz, bere egokitasuna aztertu beharko litzateke eta, lurzoru horiek garatzekotan, lurzoru urbanizagarritzat hartu beharko lirakeke.
- Bizitegi hazkunderako hautabide ezberdinak Gernika-Markina eskualde egiturako Lurralde Zatiako Planean ahalbideratutakoa hartzen dute oinarritzat. Hala ere, Lurralde Antolamendurako Arztepideen aldaketa dokumentua (urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretua) da erreferentziakoa gai honetan, eta honek 20-39 etxebizitzako tarte finkatzen du udalerrarentzat.
- Galartzan proposatutako lurzoru industrialaren handitzeak Gernika-Markina eskualde egituraren Lurralde Zatiako Planaren aurreikuspenak gainditzen ditu. Zuzendu egin beharko da hori, LZPearen ezarritako mugetara egokituz azalera eta adieraziz, alde batetik, garapen-ahalmena duten lurzoru kalifikatuak eta, bestetik, lurzoru berrien okupazioa benetako beharren arabera.
- Galartza poligonoaren hegoalderako sARBIDEA alde aurretik dagoen bizitegirako hiri-lurzoruaren ondotik egiten da, eta horrek ibilgailuen joan etorriek eragindako arazoak dakartza, atmosferaren kutsadurarekin batera zarata eta konbustioaren emisioekin batera. Baita ere, ez da ematen Nemark gunea eta hegoaldearen arteko beharrezko bide-lotura. Baita ere, Planak proposatzen du Nemark gunetik sARBIDEA bat, eta hau kendu egin zen Etxebarriko AS-en aurreko aldaketa espediente baten.

Azkenik, egindako kontsulten zerrenda bat egiten du. Ikuspegi hau xehetasun gehiagoko komentatzen da Memoria honen 4. Kapitulan.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

- Txostena egiten dutenek beraien burua organo substantibotzat hartzea ez dago erabat argi erreferentziako araubidean, 21/2013 Legearen 5 eta 11 artikuluetatik ezin baita zalantza gabe antzeman hasierako fase hauetan. Baina tramitazio hau ez oztopatzeko eta administrazioen artean zor den elkarkidetzak dela eta, erredaktore talde honek kasua ontzat emango du.
- Aurrerakinak ez dauka zertan jaso gaur egun tramitatzen ari diren espedienteen proposamenak, are gehiago kontutan hartzen bada horietatik batzuk (esateko, “eskola gunea”rena) bera idatzi eta ostekoak direla.
- Txoribentak 2/2006 Legearen 11. artikulua ezarritako baldintzak betetzen ditu. Hori egiaztatzeko nahikoa da bertara joatea eta ikustea erabat integratuta dagoela Markina-Xemeingo hiri-bilbean. “Aulesti”ko industrialari dagokionez, ez dakigu zertaz ari den txostena egiten duen organoa.
- Txostena egiten duen administrazioak Bizkaian behin betiko onartutako plangintza orokorretan hiri-lurzoru finkatu bezala sailkatuak bizitegi lurzoru asko ez dute inolako urbanizatzeko prozedurarik izan lurzoru urbanizazinetik, 60, 70 eta 80. hamarkadetan egikaritu baitira, eta unean uneko benetako egoera islatu dutelako. Hori da hiri-bilbearen iparraldean kokatutako lurzoruen kasua (Erbera/San Andres).
- Bat gatz eremuak bere bide-bilbean beste sailtasun batzuk dituelarekin, baina beraiek hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarritzat hartzea hurrenez hurren EHLHLren 11 eta 14 artikuluetan ezarritakoa jarraituz egingo da, kontutan hartuta soberan jakina dela hirigintzako egunerokotasunean lurzoru urbanizagarriko tamaina txikiko sektoreak besterik gabe mugatzen herri txikietan bere egikaritzezara kondentatzea dela.
- Hala da, bizitegi-hazkunde hautabide ezberdinak Gernika-Markina eskualde egiturako Lurralde Zatiko Planean ahalbideratutakora doitzen dira. Dokumentu hau txostena egiten duen administrazioak sustatu eta onartu zuen eta lurralde plangintzaren erreferentzia Nagusia da, arau berezi eta azken arau bezala, indarrean sartu baita (31/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa; 73 zk. EAA, 2016ko apirilaren 19koa) Lurralde Antolamendurako Artezpideen aldakeeta onartzen duen urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretua baino bi hilabete eta herri beranduago (25 zk. EAA, 2016ko otsailaren 8koa).
- Galartzan proposatutako industri-lurzoruaren handitzea erabat egokitzen da Gernika-Markina eskualde egiturako Lurralde Zatiko Planera (horretarako nahiko da ikustea bere 6. antolaketa planoan “Lurralde Eredua”). Ez da existitzen “garapen ahalmenaren kalifikatutako lurzorurik” edo talde honek ezin izan ditu aurkitu udal plangintzaren azterketa zorrotz baten ondoren. Bestalde, proposatutako lurzoru epe luzerako erreserbako sektoretan gabeko lurzoru urbanizagarri bezala egituratzen da eta, kontzeptualki, erreserba baterako ez da alabarrezkoa “benetako” behar bat izatea (horretarako, hain zuen, berehala egikaritu ahal den hiri-lurzoru bat eskaini beharko bailitzateke edo, are hobeto, orube bat), baizik eta “balizko” behar bat. Beraz, ez dugu nola nahiko zerbait bezala ikusten proposamen hau industria sektoreak horrenbeste pisu duen herri baten.
- Ados gaude honekin: Galartza poligonoaren hegoalderako sarbidea alde aurretik dagoen bizitegirako hiri-lurzoruaren ondorengatik egiteak ibilgailuen joan-etorriek eragindako arazoak dakartza, atmosferaren kutsadurarekin batera zarata eta konbustioaren emisioekin batera. Hori dela eta, bide-konponbide bat proposatu zen Plan Orokor honetan (nahiz eta azkenean alde batera utzi den, bere kostua dela eta), era horretan NEMAK gunea eta hegoaldearen arteko beharrezko bide-lotura lortzeko. Bestalde, Plan Orokorrek legitimitate osoa du NEMAK ingururako sarbide berri bat planteatzeko, bai AS-en aurreko espedienterik batetik kendutakoa, bai berri asmatutako bat, hirigintza araudia eta arloko araudia betetzen badira eta behar den bezala arrazoiak bada bere beharra.

1.2.- Planari aplikatu beharreko iraunkortasun-printzipioak, ingurumen-helburuak, ingurumen-irizpide estrategikoak eta adierazleak.

Plan Orokorraren gauzatzea inspiratu behar duten iraunkortasun printzipioak jasotzen dituzten legeen zenbait artikulua aipatzen ditu.

Ondoren Plan Orokorrari aplikatzeko hamabost ingurumen-helburu adierazten ditu.

Gero helburu horiek lortzeko hamabost ingurumen-irizpide estrategikoak aipatzen ditu, Plan Orokorrean xedatutako helburuak lortzeko hautabideen identifikazio, deskribapen eta ebaluazioan sartzeko.

Azkenik, HAPOn ebaluaketaren ondorengo jarraipena egiteko ingurumen adierazleak adierazten ditu.

1.3.- Plan Orokorraren proposamenen ingurumen-analisia.

Puntu honetan irismen dokumentuan adierazitakoa jasotzen da eta ondoren erredaktore-taldearen ohar bat egiten da.

1.3.1.- Bizitegi eta jarduea ekonomikoko garapenen hauabideen analisia

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 14 artikulua ezarritakoaren arabera, lurzoru urbanizagarri bezala sailkatutako azalerek, eramangarritasun-printzipioaren arabera, proportzio-erlazio egoki eta zuzena eduki beharko dute udalerrian aurreikusitako biztanle-hazkundearekin, kontutan hartuta bere harrera-ahalmena eta azken urteotako biztanleriaren bilakaera eta eraikuntza-lizentzia berriak.

Halaber, HAPOk ahalbidetzen duen etxebizitzaren hazkundeak urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuan (horren bidez Euskal Autonomía Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen da bizitegi-kuantifikazioari dagokionez) adierazitako mugak bete behar ditu.

Hasierako dokumentu estrategikoak bere ingurumen helburuetan zehazten duenaren haritik, bizitegi nahikoa trinkoetan oinarri behar da proposatu beharreko hiri garapena, eraikitako bizitegien ondarea balioetsi eta jasangarritasun irizpideak ezarri behar dira eraikuntzan. Hartara, alde batera utzi behar dira lur kontsumo handiagoa eta mugikortasun arazo handiagoak dakartzaten dentsitate baxuko jarduketak.

Bizitegien kuantifikazioari dagokionez 2 (hazkunde neurritsukoa) eta 3 aukerak (hazkunde maximoa) ingurumen helburu horietatik urruntzen dira, eta 1 aukera egokiagoa dirudi ingurumenaren ikuspegitik. 2 eta 3 aukerak, printzipioz, ezin dira jo bideragarritzat, ingurumenari eta teknikari dagokienez: izan ere, lurraldea antolatzeo gidalerroek adierazitako tartea gainditzen du kalkulaturako bizitegien kuantifikazioak, Bizkaiko Foru Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren txostenean zehazten denez.

HAPOn hirian bertan barne disfuntzioak eta landa eta natura ingurunean eragin larriak sortzen dituen garapen estentsiboko eredia inugatzeko lurzoruaren aurrezpena kontuan hartzeko, berariazko irizpidea hauek bete behar dira:

- Dauden eskariak era konplexu eta doian identifikatzea, ase behar ez diren eskariak argi identifikatuz.
- Hiri garapenak kalifikatutako lurzoru optimizatzea, dauden eskariak ase eta ahalik eta lurzoru gehien garapenetik babesten dituen eraikuntza dentsitate batekin.
- Bizitegi eta industria lurzoru finkatuek proposatutako beharizanak hartzeko dauzkaten ahalmenak balioan jartzea lehenestea, hiri eremu degradatuak, bizitegi eta industria aurriak eta espazio interstizialak leheneratuz edo ordeztuz eta hiri birgaitu eta berritzea sustatuz. Hala gertatzen da zenbait eremurekin, hala nola Erbera, Galartza eta Altxaarekin, non kalifikatutako espazio hutsa

baitago, kontsumo berriak egin aurretik erabili beharrekoa. Hirigintzari buruzko legediak mekanismoak jasotzen ditu lurzorua merkatuan jartzea dinamizatzeko.

Identifikatutako aukeren analisiak bizitegi erabileretarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua sailkatu eta kalifikatu ez ezik, ahal den neurrian, 2/2006 Legearen 53. artikuluan adierazitako beste zehaztapen batzuetara ere zabaldu beharko dira, ingurumenean ondorio esanguratsuak eduki baditzakete. hala nola bide proposamenetara.

IAEK aurkeztutako aukeren analisisa jaso behar du eta izan daitezkeen aukerak identifikatzen sakondu behar du, irismenari buruzko dokumentuan eta kontsultatutako herri administrazioen erantzunetan azaldutakoari jarraiki.

Jasotako erantzunetan proposatu diren aukerak sustatzaileak planteatutakoekiko osagarriak dira, eta, nolahi ere, HAPOn aukeren analisisan sartu behar dira, planeko helburuekin betetzea egingarria izateko moduan.

Zehazki esateko, honako hauek analisisan jasotzea eskatzen da:

- Beharrezko etxebizitza kopurua udalaren egiazko beharretara egokitzea, betiere LAGetako aurreikuspenak gainditu barik.
- Balio estrategiko handiko lurzoru galera mugatzea eta aren garatu gabe dauden eta ahalmen agrologiko garrantzitsua duten lurzoruak berreskuratzea.
- Industria lurzoru berriaren beharrezko baloratzea, egun jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta dauden lurzoruak lohiz bete ez direla kontuan hartuta.
- Antolamendu orokorrak udalerriko baldintzatzaile akustikoak aintzat hartzea. Mugikortasun jasangarriko neurriak ezartzea baloratzea (trafikoa lasaitzea, industria bideak bideratzea ...).

Era berean, hauxe izan behar dute aintzat aukerak:

- Urko, Ibarrolatzerreka eta Muniberreka ibaien ibarretako ingurune naturala zaindu beharra, eta batez ere lautada alubiala. Hartara, haren ahalmen naturala ahalbide behar da ahal den neurrian, baila aisialdirako gunetzat erabiltzea ere. Gainera, Habitaten eta ekosistemen konektibitate-ardatza sortzeko modua izango da. Ingurumenaren aldetik bideraezintzat jo behar dira lurzoruaren landa egoerako ibarreko zonaldeak hartzen aurreikusitako aukerak, urei buruzko araudian zehazturiko lehentasunezko fluxuko zona Idearen barruan.
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-ahalmen handieneko lurzoruak aurkitzea eta babestea, halen ekoizteko gaitasunaren galera ekartzen duten erabilerak saihestuz, haien etorkizuneko kudeaketa eta antolamendua tokiko elikadurazuztearen ikuspegitik erraztuz.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

EHLHLren 14 artikulua ezartzen du, alegia, lurzoru urbanizagarri bezala sailkatutako azalerek, eramangarritasun-printzipioaren arabera, proportzio-erlazio egoki eta zuzena eduki beharko dutela udalerrian aurreikusitako biztanle-hazkundearekin, kontutan hartuta bere harrera-ahalmena, baina ez du inolako aipamenik egiten ezta azken urteotako biztanleriaren bilakaerari, ezta eraikuntza-lizentzia berriei. Beraz, bere planteamenduak bi faktore hartu behar ditu kontuan: biztanleriaren hazkunde aurreikuspenak eta harrera-ahalmena. Lehen faktoreari dagokionez, esan behar da planaren helburuetariko bat, bere justifikazio memorian jaso, biztanleri dinamika ezkorra etetea dela, eta, ahal den neurrian, biztanleria erreduzitzea, batez ere tarte gazteenean, tarte hau, kokatu eta familia bat eratzeko orduan aldamenko Markina udalerria hautatu delako bertan dagoen eskaintza dela eta. Hau errolda adierazleetan islatu da eta herritarren parte-hartzean izandako ea elkarrizkeeta eta saio guztietan. Hauetara joan direnak argi adierazi dute bere asmoa zentzu honetan, eta baita etxebizitza mota eta prezio tarteei buruz. Are gehiago, esan behar da aipatutako araua (hain zuzen 14. artikuluan 2. puntuko a letra) bizitegiak soilik ari dela dirudiela eta plan honen kasuan lurzoru urbanizagarriko hiru kalifikazio ezberdin (bizitegi, jarduera ekonomiko eta

zuzkidura) eta hiru kasuetan be sektorizatu gabeko lurzorua, epe luzerako erreserbakoa eta horretarako eskaera eta baldintzak baldin eta badauden egikaritzeko.

Ahalbideratutako etxebizitza hazkunderari dagokionez eta bizitegi zenbaketari dagokionez LAAk aldatzen dituen urtarrilaren 19ko 41/2016 Dekretuaren mugaketak betetzeko beharri dagokionez, indarrak gabe geratu da uztailaren 30eko 128/2019 Dekretua indarrean sartu denetik. Hala ere, txostenean esaten denez HAPOean aurreikusitako gehieneko etxebizitza kopurua LAAen aldaketaren aplikaziotik (2016ko otsailaren 9tik indarrean, eta 39 etxebizitza ezartzen dituen Etxebarriren kasuan) eta Gernika-Markina LZPk esandakoaren artean (2016ko maiatzaren 19tik indarrean, udal berearentzat 102 etxebizitza ezartzen dituen) txikiena era loteslean izateko beharrak bere salbuespena dauka LAAen aldaketaren bigarren artikuluan (7. artikuluko 5. puntuko b eta c atalak, bere idazkera berrian).

HAEk bere ingurumen arloko helburuetan zehazten duenaren harira, proposatu beharreko hiri-garapena hiri ehun trinko eta erabat dentsuak eratzean oinarritu behar da, eta baita eraikitako ondarearen balioztatzean eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak ezartzean, lurzoru kontsumo gehiago eta mugikortasun arazoak eraten dituzten dentsitate baxuko jarduketak alde batera utziz.

Bizitegirako zenbaketari buruz ingurumen organoak esandakoari dagokionez, esan behar da 1. hautabidea bideraezina dela hirigintza ikuspuntutik biztanleari buruzko helburuak eta herriaren beharrak lortzeko eta 2. (neurritzko hazkundera) eta 3. (hazkunde maximoa) hautabideak, nahiz eta ezer ez egiteko irizpide ideologikoaz (errespetagarria, baina eztabaidagarria) alden, erabat bideragarriak dira ingurumen eta teknika ikuspegietatik, erredaktore talde honek argudiatu duen bezala. Gero azpimarratuko da hau berriz.

Erredaktore talde hau lurzoruaren gutxieneko kontsumo (edo ingurumen organoaren hitzetan "aurrezte") irizpidea hartzearen alde dago eta hori kontutan hartuta landu du HAPO. Baina, errespetu osoz beti ere, uste du ingurumen organoaren txostenean adierazitakoak era orokorrean egin direla eta udalerraren errealitatea ezagutu gabe (batez ere Erbera, Galartza edo Altzaako "esparru huts kalifikatuak" aipatzen dituen). Lurzoru "kontsumo berri" bakarra, hala esanda, Galartzako sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarria da, epe luzerako erreserba bezala planteatzen dena (gaur egun, planen iraunaldia hogeita urte inguru izaten da), eta txostena egin duen organoa parte den Administrazioak sustatutako dokumentu baten aurreikusita dago, hau da, Gernika-Markina LZP. Ustez hirigintza legediak jada aurreikusten dituen "lurzoruaren merkaturatzea abiatzeko tresnei" dagokionez, eskertuko genuke beraiek aipatzea eta Etxebarriko kasuan nola aplikatu ahal izango liritekeen zehaztea.

Aurrerakinaren hautabideen analisia gehien bat bizitegi eta jarduera ekonomiko erabileratarako lurzoruaren sailkapen eta kalifikazioan zentratu da, lurzoru urbanizaezinentzako hautabideak (bere biziko atal bat zuzentzen da gai honi) erabat baldintzatuta daude lurralde plangintzaz eta araubide sektorialaz. Izan ere, hauek ea definituta uzten dute, aukera gehiagorik gabe, lurzoru mota honen antolaketa. Analisi horretan argi ikus daiteke egiturazko antolaketari buruz proposatzen dena (hau baita aipatutako 2/2006 Legearen 53 artikulua arautzen duena). Beraz, uste dugu nahikoa informazio eman dela bai herritarren parte-hartzerako, bai ingurumen ebaluaziorako, bai aurrerantzean erabakiak hartzeko.

Ez dugu ulertzen zertaz ari dan txostena IAEk "aurkeztutako aukeren analisia jaso behar du eta izan daitezkeen aukerak identifikatzen sakondu behar du, irismenari buruzko dokumentuan eta kontsultatutako herri administrazioen erantzunetan azaldutakoari jarraiki" dionean. Lehenik eta behin, hirigintza legediaren arabera, hautabideak aurkezteko unea Aurrerakina da (EHLHLren 87 artikulua), jada idatzaia, jendaurrean jarria eta bere hasierako dokumentua ingurumen organoak aztertua dagoena. Hurrengo urratsa, hau da, HAPO bera, da idazketaren aurreko faseen emaitza ikusita era arrazoituan eredu baten alde aukera zehatza egiteko unea, bera era xehatuan garatuz.

Edonola ere, baloratu dira ere jasotako erantzunetan proposatutako hautabideak, bere bideragarritasunaren, Etxebarrira udalerriko errealitatera egokitzapen eta Planaren helburu orokorren

arabera. Beti ere argi utzi behar da “baloratzeak” ez duela nahitaez esan nahi “beregantzea” eta, hain zuzen ingurumen organoak analisisian sartzeari eskatzen zituen puntuei dagokionez, talde honek ondoko hau esan nahi du:

- Proposatutako etxebizitza kopurua udalerriko beharrei egokitzen da. Ezin da legez eskatu, aurreko puntuetan arrazoitu denez, eta arbitrariotzat jotzen da LAAn aurreikuspenak alabeharrez aplikatu behar diren irizpidea. Esan beharra dago hala ere LAA berrietatik (128/2019 Dekretua) 44 etxebizitzako gehieneko eskaintza ateratzen dela, eta hauen barruan ez dago zertan sartu AS-en Bizkarra sektorean erdizka eginda geratu zirenak. Beraz, HAPO honen eskaintza erabat arrazoigarria eta legera egokitua da.
- Ahal den gehien mugatu da balio estrategiko altuko lurzoruen galera, eta ez da eragozpenik jartzen nekazaritza ahalmen nabarmena duten garatu gabeko lurzuok errekuperatzeko.
- Industriarako lurzoru berriaren beharra baloratu da, epe luzerako erreserba bezala planteatuz, kontutan hartuta HAPO errealtatean bi hamarkadako iraunaldia izan dezakela, uste baita arrazoizko osagarri bat dela jada jarduera ekonomikoetarako lurzuok betetzearen aukeraren aurrean, hauek nabarmenago lotuta baitaude egoera ekonomikoaren eta sustapen pribatuaren gorabeheretara.
- Kontutan hartu dira udalerriko baldintzapen akustikoak non eta eragina duten. Kontutan hartu da ere, ahal den neurrian, mugikortasun iraunkorren neurriak hartzea, bidegorri berria eta industriguneen bide sarearen berdiseinuarekin.
- Se ha procurado la preservación del entorno natural de las vegas de los ríos Urko, Ibarrolatzaerreka eta Muniberreka ibaien ibarrak eta lautada alubialen natura ingurua gordetzeko saikera egin da, ur-arloko araudian zehaztutako lehentasuneko fluxu gunea errespetatuz.
- Nekazaritza-abeltzaintzarako ahalmen gehieneko lurzuok identifikatu dira eta lurralde plangintza sektorialean aurreikusitako babes eman zaie. Hala ere, lan-talde honek ez daki nola ahal diran arautu hauek hirigintza ikuspegitik (hau da, Plan Orokor baten eginkizunetik) “tokiko elikadura-burujabetasun” ikuspuntutik.

1.3.2.- Lurzoru urbanizaezinaren antolaketa kategoriak eta kalifikazioa

Aurrerakinak proposatutako lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea LAAetan eta nekazaritzako eta basozaintzako LAPean ezarritakora egokitzen da, beraz, positibotzat jotzen da alderdi hori. Hala eta guztiz ere, zenbait gogoeta egin dira:

Aurrerakinaren proposamenak balio strategiiko handiko lurzoruaren eremu batzuk identifikatzen ditu batez ere Urko ibaiaren ertzei lotuta eta hiri eta industria lurzoru kalifikatuekin muga eginez. Nekazaritzaren sektorerako kategoria estrategikoa izateari buruzko irizpide orokorra lotesletzat jotzen da eta, beraz, lehentasunez jotzen da hura mantentzea eta iraunaraztea beste erabilera batzuen aldean.

Lurraldea antolatzeko artezpideek definitutako babes bereziko kategoria (LAAen ingurune fisikoari buruzko 6.8.1 gidalerroan ezarritako irizpideak aplikatuz) ez dago nahikoa definituta aurrerepeneko dokumentuan. Bertan natura eta kultura balio bereziak dauzkaten eremuan sartu behar dira: zuhaitzi autoktonoak eta Batasunarentzako lehentasuneko intereseko habitatak (egun gehienak Baso kategorian), natura balio handiko ibilguak edo egoera ekologiko oso onekoak, tokiko korridore ekologikoak: antzeko helburu eta erabilerak dauzkaten egungo heskaiak, errekek eta landa re autoktono atalak, interes ekologikoko tokiak ... batuz.

- Baso kategorian baso autoktonoak, udalerrian urriak izateagatik natura interes handia dutenak, eta espezie aloktonoen sailak sartzen dira. Mendietan euren ustiapen intentsiboaren ondorioz sortutako arazoak direla-eta, egokituz jotzen da ekoizpeneko edo kontserbazioko erabilera trinkoaren arabera bereizitako eremuak identifikatzea baloratzea. Egokituz jotzen da udal eremuan basogintza erabilera dibertsifikatzeko aukera baloratzea, euren ingururnen balioengatik edo babesteko eginkizunagatik kornenigarrien diren eremuetan, mendiaren ekoizpen eginkizunak espezie

autoktonoetarantz eramanez, paisaiaren kalitateari, biodibertsitateari, azaleko uren babesari, higadura arriskuei, lurzoruen horizonteen galerei... dagokienez ingurumenaren narríatzeart buelta ernateko. Balorazio horretan kontuan hartu behar da Eucalyptus generoak daukan sakabanatzeko, eraldatzeko eta inbaditzeko izaera nabarrnena (Batzorde Zientifikoaren Babes bereziko erregimneco basa espezieen zerrendari eta Espainiako espezie rnehatxatuen katalogoari buruzko irizpenean Eucalyptus nitens espezie exotikoaren balizko izaera inbaditzaileari eta arriskuari buruz adierazten den bezala, hura landu eta merkaturatzeari dagokionez).

- Gainjarritako baldintzei dagokienez, positibotzat jotzen da aurkezturiko proposarnena, eta berau rnutatzeari eta garatzeari eustea eskatzen da, bertan oraindik aintzat hartu ez direnak barne. Nolanahi ere, irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak, Euskal Autonomía Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duenak. V. kapituluan (gainjarritako baldintzak) xedatutakoa beteko da.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

Talde hau ados dato balio estrategiko altuko kategoria nekazal sektorearentzat kategoria estrategikao izatearen irizpidearekin eta, baita bere manentze eta gordetzeari lehentasuna ematearekin, baina ez une bakoitzeko gizarte errealitatearen arabera udalerriko garapen sozio-ekonomikoarentzat ezinbesteko diren beste erabilera eta jarduera batzuen gainetik. Izan ere, LZPk berak uzten du, bere 48.2 eta 61.2 artikuluen arabera, salbuespen justifikatuak egotea kategoria honetan, eta hori da HAPOeko dokumentuak planteatzen duena, era arrazoituan kasuan kasu, eta azalera mugatuarekin, izan ere, ID beraren baldintza bat betetzeko (bide azpiegiturei dagokion 1.3.3 puntua), hau da, ibilgailuentzako beste aukera bat ematea hiriguneko trafikoa arintzeko.

Lurralde Antolamendurako Artezpideetan zehaztutako babes bereziko kategoria definituta dago Aurrekarian eskuragarri dagoen kartografian (hau da, Eusko Jaurlaritzaren ofiziala) dagoen neurri berean. Bertan sartu dira natura eta kultura balio bereziak dituzten gunek oinarri bezala hartuz tresna geografiko ofizialak.

- Baso kategoriaren mugaketa ez da loteslea udal plangintzarentzat (LZPren 10 artikuluen halabera lotesle dira soilik balio estrategiko altua eta erabilera publikoko mendiak), beraz, honi buruz esandakoak gomendio huts bezala hartu behar dira. Erredaktore talde honek uste du arazo horiek arloko araudiak konpondu behar dituela, eta arlo horretan ingurumen organoa parte den Administrazioak dauka ahalmen osoa 27/1983 Legeak ezarritako eskumenen sistemaren arabera.

- Gainjarritako baldintzapenei dagokionez, legez beharrezkoak direnak sartu dira. Nekazaritza-basogintzako LZPren V. Kapitulan adierazitakoen kasuan, ezin izan da garatu “Gutxi aldatutako paisaiako gunek” deritzona, eskumena duen administrazioak ez baitu bete 60.1 artikuluan xedatutako kartografiaren garapena.

1.3.3.- Infraestructuras viarias

Udal bideei dagokienez, aurrerakinak aipatzen clu kontuan har daitekeela berariazko irtenbide bat definitzeke dagoena, saihsbide baten pareko eginkizuna duena, Elexalde auzoaren kasurako BI-2636 errepidearen ordezk bide hori indarreko arau subsidiarioetan proposatuta edo garatzeke dauden bizitegi eremuen garapenaren ondorio litzateke.

Gai honetan, aurreko proposamenaren ordezk gisa, irismeneko dokumentua ohiko trafikoa arintzeko dauden neurriak garatzea baloratzeren aldekoa da, hain zuzen egungo BI-2636 errepideak biztanleei sorrarazitako eragozpenak gutxitzeko (zarata, kutsadura ...) asmoarekin: altxaerako trazadura elementuak (sakanguneak, oinezkoen goraguneak edo belarriak dauzkaten zebrabideak, kuxinak...), oin-planoko trazadurakoak (biribilgune txikiak, bihurtuneak ediko irlatxoek bitartez. duten zolak), abiadurakoak (30 eremua ...).

Galartzako industrialderako ordezk sarbide baterako, aukeren analisisan kontuan hartu behar da Nemaken instalazioetarako egungo sarbidea erabiltzea eta hura Galartzako industrialdearen iparralderaino luzatu ahal izatea, halako moldez non Markina-Etxebarria arteko trafikoa saihesten

den (eguneko 4.000 ibilgailu inguruko EBBI. astunak % 9 izanik) Erberaren aldirietan. Halaber, analitiko at utzi behar da Nemark eremurako sarbidea, Etxebarriko arau subsidiarioak aldatzeko aurreko espediente batean ezabatu zena.

Oro har, proposatutako edozein bide aukera arrazoitu behar da ando eta ikuspuntu eginkizunaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik baloratu behar da. Planifikatzailearen gogoan eskariaren kudeaketa nagusitu behar zaio azpiegitura eskaintza handitzeari, horrek, egungo dinamikarekin, bermatuta baitauka kolapsoa, inbertsioaren eraginkortasuna murriztuz lurzoru, energia eta material kontsumo gero eta handiagoen bizkar.

Azkenik, mugikortasun jasagarriari dagokionez, aurrerapenak lehentasuneko gai gisa identifikatzen du udalerrian beste mugikortasun aukerabatzuk (bizikletaz, oinez, etab.) aztertzea. HAPOk udalerriko bizikleta-sarea osatu beharra aipatzen du, bizikletarako gida-planean aurreikusitako jarduerak kontuan hartuz.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

Plan Orokor honetan aztertu da saihezbide antzeko funtzioa betetzen duen konponbide bat Elexalde-Erbera auzoarentzat, BI-2636 errepidarekiko aukera izan daitekeena, era horretan foru-errepideak biztanleriari eragindako eragozpenak (zarata, kutsadura...) gutxitzeko. Alde batera utzi izan behar da azkenean bere kostu altua dela eta, Udalak bere osotasunean ordaindu behar zuen zuzkidura publikoen egikaritzarako jarduketak bat baitzen.

Edonola ere, etorkizunean bera eraiki eta ordaintzea lortuko balitz ere, hori ez da bateraezina IDko puntu honetan proposatutako trafikoa moteltzeko neurriekin, ingurumen organoa parte den Administrazioak bere titulartasuneko den BI-2636 errepidean edozein unetan ezarri baititzake HAPOk jaso ditzaken xedapenen indarrean sartze eta egikaritzari itxaron beharrik gabe.

Para un acceso alternativo al polígono de Galartza poligonora beste sarbide bat egiteko, bidearen diseinurako aplikagarri den araudi teknikoan jasotako geometriak aplikatu ezker, ez da nahikoa Nemark lantegirako gaur egungo sarrera. Beraz, konponbidea sarrera hori ekialderago eramatea izango litzateke, eta handik Galartza poligonora arte luzatu.

Azkenik, mugikortasun iraunkorrari dagokionez, bizikleta sarea osatzeko jarduketak planteatzen dira.

1.4.- Ebaluazio eremuko baliabide, ingurumenaren ikuspegitik aipagarriak diren area eta ingurumen-arazoak.

Ondoko zerrenda egiten du:

- Ur-ipurtatsaren interes bereziko eremuak (udalerriko ur-ibilguak).
- Lurrazpiko urak (ipar-antiklinario ur-masa).
- Ekologi-igarobide sarea (udalerriri iparraldean: Arno-Urdaibaiko artadi kantauriarrak).
- Erkidego-intereseko habitatak (4030, 6210, 6230, 6510, 9120, 91E0, 9340).
- Euskal Kultura Ondareko ondasunak (Donejakue bidea) eta presuntzio arkeologikoko guneak.
- Nekazaritza-basogintzako LAPeko balio estrategiko altuko lurzoruak (Urko, Basaberreka eta Muniberreka ibarral).
- EAeko hezeguneeen inbentarioko Laugaineko istila.
- Jabari Publiko Hidraulikoa eta bere zortasun eta zaintza eremuak.
- Gizakiak edateko ur-harguneak (ez da bat bera ere adierazetn).
- LZPk mugatutako babes bereziko lurzoruak.
- Meatxatutako edo katalogatutako flora eta fauna espezieak.

- Higadura arriskuko guneak (Arantzamendi, Kalamua eta Olaburu tontorrak).
- Uhalde arriskuko gunean eta lehentasuneko fluxu guneak (Urko ibaiari lotuak Altzaa, Galartza eta Urgana auzoetan).
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua (Fagor Altzaan, Galartza poligonoa, etab.).
- Zortasun akustikoko guneak foru errepideetan (BI-2636, BI-3950, BI-4404).
- BI-2636 errepidaren trazatuaren hobekuntzarako proiektua.
- LZPea jasotako eraginak udal plangintzarengan.
- Udalerriko zonifikazio akustikoa.
- Hornidura eta saneamendu sareak.
- Arrisku naturalen mapa.
- Flora exotiko inbaditzailea.
- Udalerriko azpiegitura berdea.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA:

Ingurumen organora bidalitako hasierako dokumentu estrategikoak era xehatua jasotzen du goian adierazitako ikuspegi buruzko informazioa. Adierazitako ikuspegi asko bakarrik ahal daitezke jaso Plan Orokorrean informazio edo gainjarritako baldintzapen bezala. Izaera horretatik kanpo daudenak Plan Orokorrean legez lotesle diren neurrian jaso dira. Bere lotesletausna lege ikuspuntutik oinarritu ez den gomendapen edo ikuspegiak (adibidez, "azpiegitura berdea", bakarrik orain dela gutxi indarrean sartutako LAAetan jasoa dago legez) bakarrik jaso dira aplikatzeko arrazoizko direnean edo lurraldearentzat eta, batez ere, biztanleriarentzat benetako hobekuntza bat denean.

1.5.- Ingurumen-azterlan Estrategikoaren norainokoa eta xehetasun nahiz zehaztapen maila.

Ondoko edukia adierazten du:

- Beste plan eta programa batzuekiko harremana.
- Hautabide-analisia.
- Neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaile proposamena eta beraien kostua kalkulatu, hala badagokio, eta, horiek gauzatzeko aldi baterako plangintza egin.
- Ikuskaritza-programa, non 21/2013 Legeak 51. Artikuluan eta 211/2012 Dekretuak 16. artikuluan xedatutako jarraipena egiteko aurreikusitako neurriak deskribatuko diren; beraien betetze-mailaren jarraipena egitea utziko du horretako unea eta maiztasuna adieraziz.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA: Planaren ingurumen-taldeak egindako Hasierako-agiriak 211/2012 Dekretua eta 21/2013 Legea betetzen zuen bezala, Ingurumen Azterlan Estrategikoak ezarritako edukia beteko du eta Irismeneko-agiriaren zehaztapenak jasoko ditu, arrazoizkoak, proportziozkoak eta ingurumen organoaren eskumenen arabera lege ikuspegitik lotesleak badira beti ere.

Kartografiari dagokionez, Ingurumen Azterlan Estrategikoan jaso behar dena adierazten du (landaredia, arrisku naturalak, kartografian jaso daitezkeen eragin eta neurriak eta, hala badagokio, ikuskatuko diren eremu edo baliabideak), erraz erreproduzitzeko eta ikusteko formatuan eman behar dena.

Bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena eta lurzoru eta hirigintzari buruzko araudian aurreikusitako beste txosten batzueri buruz dio IAEn proposatutako aukeren eta planaren ondorio

negatiboak saihesteko, murrizteko edo arintzeko neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena gehitu beharko dela eta, gainera, planak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan aipatzen diren agiriak eta txostenak eduki beharko dituela, gutxienez, 2/2006 Legeak eskatzen dituen berariazko agiri guztiez gainera.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA: ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ez dakar inolako araurik IEEaz-ean eduki hori sartzera behartzen duenik.

1.6.- Informazio eta kontsulta modalitateak.

IEEren informazio eta kontsulta erak adieazten ditu, gutxienez hauek:

- 45 egun balioduneko gutxieneko epeaz kontsulta ukitutako Administrazio eta publiko interesdunari, Ingurumen-azterlan estrategikoa eta planaren hasierako bertsioa bidaliz (zerrenda gutxienez Irismeneko-agirian adierazitakoa izanik).
- Planaren eta Ingurumen-azterlan estrategikoaren jendaurreko erakustaldia, 45 egun balioduneko gutxieneko epeaz, iragarkia BAOean jarritz.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

- Irismen-agiria emateko fasean ukitutako herri-administrazio eta publiko interesdun bezala zerrenda horretan sartutako hogeita hamaika (31) organo, erakunde eta elkarteetatik, bakarrik hamabik (12) erantzun dute (hauetatik bik luzaro igarota jada horretarako epea) eta denak izan dira administrazio edo erakunde publiko, eta zenbait kasutan sail berekoak. Ingurumen organoak alde batera uzten du Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4.1.c) artikuluan jasotako prozeduran pertsonatze-printzipioa. Bestalde, 212/2012 Dekretuaren 12. artikulua ez dakar "baliodun" hitza, eta soilik ematen du epea egunetan ("baliodun" diren ala ez organo sustatzaileak interpretatuko du txostenean aipatzen ez den 39/2015 Legearen 29.2 artikulua ezarritakoa jarraituz). Ez du ezartzen ere zerrenda horren osatzaileei bidali behar zaienik esandako dokumentazioa, baizik eta soilik dio kontsulten izapidera eta jendaurreko erakustaldira lotu behar dela.

- Ingurumen organoak, nola ez duen kontutan hartzen 2/2006 Legeak eta bere garapenerako premiazko neurriak onartzen dituen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan ezarritako Plan Orokorra onartzeko prozedurarekin bateragarritasuna, ez du aipatzen jendaurreko erakustaldia iragarria izan behar dela ere lurralde historikoko hedadura gehien duen egunkari edo egunkarietan.

Ingurumen-adierazpen Estrategikoaren eskaerari dagokionez, 21/2013 Legearen 24. artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua arabera eduki behar duen dokumentazioa adierazten du.

2.- Antolamenduaren xede den eremuaren arrisku naturalen mapa.

Ingurumen Azterlan Estrategikoan jasotzen da eta Plan Orokorraren dokumentazioan islatu da.

3.- Planean jasotako aurreikuspenak hartzeko lurzoruen ahalmena.

3.1.- Administrazio hidraulikoaren txostena.

URA Euskal Ur Agentziaren txostena dago (2019-01-28an jaso, ID eman eta ondoren). Bere ondorioak jaso dira.

Konpainia hornitzaileei egindako kontsulten barruan, ez da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren txostenik jaso.

3.2.- Errepide eta dauden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioen txostena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko txostena dago (2019-01-17an jaso, ID eman eta ondoren) hautabideak baieztatu eta bere eskumena den gaiari buruzko informazioa eman.

4.- Hasierako onarpeneko dokumentuan sartutako neurri eta zuzenketak.

Kartografia eskuragarri dagoen azken informazioa doitu da.

5.- Neurrien justifikazio xehatua eta balorazioa garapen iraunkorraren ikuspegitik.

IJTea zehazten da.

4. KAPITULUA.- KONTSULTA-IZAPIDEA.

1.- Ingurumenari buruz kontsulta-izapidean izandako alegazioak.

Ez da partikularren alegaziorik jaso. Alegazio edo ohartarazpen bezala jaso dira ondorengo erakunde publikoena (IDtik aparte bidali dira):

1.1.- Sección de Producción Vegetal del Servicio Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia.

Uste du balio estrategiko handia duen lurzorua eta trantsizioko landa-paisaia modu adierazgarrian galtzen direla planteatutako hautabide desberdinen aldeko apustua egiten bada eta garapen berrietarako planteatutako areak ikuspegi integraletik antolatu behar direla. LZPren 40. artikulua ikuspuntutik, nekazaritzaren afekzio sektorialari buruzko protokoloa egin ondoren, eragina neurritzotzat jotzen du. Azkenik, nekazaritza jardura sustatu eta hobetzeko neurri osagarriak hartzea proposatzen du, baita balio estrategiko handia duen lurzoruaren galera orekatzeko, besteak beste, area degradatuak berreskuratzea, azpiegiturak hobetzea, lurzoru publikoak Nekazaritzarako Lurzoru Funtzari lagatzea, etab.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA: saiakera egin da hautatutako ereduarekin nekazaritza balio altuko eta landazabaleko lurzoruaren galera ahal den txikiena izaateko, eta bere okupazioa, beharrezkoa izan ezker, hirigunea trafiko astunetik libratzeko bide aukera bezala planteatzen zen. Txostenean aipatutako neurri konpentsatzaileei dagokionez, esateko, lurzoru publikoak Nekazaritzarako Lurzoru Funtzari lagatzea, naiz eta ontzat jotzen den, hirigintza legezketasun ikuspegitik ez da Plan Orokor baten xede edo eskumen den neurri bat.

1.2.- Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-Berroneratze Zuzendaritza.

Ondorengo ohartarazpenak egiten ditu, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak baloratu beharko dituenak HAPOren behin betiko onarpen aurreko espedientearen txostena egiterakoan.

1- Lurzoru urbanizaezineko zehaztapenak.

HAPOean egiten den lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa LAAen kategoriekin bat dator. Proposatutako araudi aurrerakinean, hala ere, doikuntza faltak ikusten dira hala ere.

2- Lurzoru urbanizagarriko zehaztapenak.

a) Lurzoru urbanizagarri industrialak: gaur egun 19,6 ha azalera duen Galartza poligonoa 3,6 ha handitzea proposatzen da. LZPk adieazten du HAPOk proposatutako gunea muga bezala hazkunde berrientzat, 1,5 ha azalera adieraziz udalerriko jardura ekonomikoen garapenerako.

b) Bizitegirako lurzoru urbanizagarria: hiru sektore definitzen dira, bat alde aurretik dagoena eta bi berri, bat existitzen denaren ondoan eta bestea eskola berriaren inguruan. Aurreikusitako etxebizitza hazkundera alde aurretiko 42 etxebizitzetatik 115 unitatera pasatzen da hazkunde gehiagoko hautabidean. Puntu hau 4. atalean baloratzen da.

c) "Eskola berriko gunea" izendatzen den sektoreari dagokionez, esan behar da marraztutako gunek "AS-en 7. Plan-barruko aldaketa: eskola gunea"-n eskola berria ezartzeko proposatutako eremua inbaditzen duela.

3- Hiri-lurzoruko zehaztapenak.

Hazkunde-hautabideen koadroan bizitegirako hiri-lurzorua handitzea proposatzen da, hautabide ezberdinen arabera, %0, %28 edo %50 artean, eta ez da zehazten gunen bakoitzean zenbat etxebizitza proposatzen diren.

Hiri-lurzoruak, hala sailkatu ahal izateko, 2/2006 Legean ezarritako baldintzak bete behar ditu, beraz, proposatutako azalerek betetzen badute ez dirudi logikoa bere sailkapena hautabide bezala planteatzea, izan ere hiri-lurzoru izango litzatekeelako. Era berean, ez baditu betetzen, ezin da sailkatu hiri-lurzoru bezala baizik eta lurzoru urbanizagarri bezala.

4- Bizitegirako zenbaketa.

LAAen aldaketa onartzen duen urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuaren 5. artikulua betez, etxebizitzan zenbakeetan hartuko dira hiri-lurzoruan egin daitezkeenak eta baita lurzoru urbanizagarri osoak, beraz, proposatutako hiri-lurzoruaren zenbaketa egin beharko da. Lurzoru urbanizagarriarentzat ezarritako 30 etxeb/ha-ko parametroa aplikatuz eman daiteke 48 eta 88 etxebizitza arteko aurreikuspena hautabidearen arabera. Hori gehituta gainerako bizitegi lurzoruan aurreikusitako 115 etxebizitzei 136 etxebizitza ematen ditu neurrizko hazkunde hautabidearentzat eta 203 etxebizitza gehieneko hazkundeko hautabidearentzat.

Plangintzak aurreikusitako gehieneko etxebizitza kopurua, era loteslean, ondoko bi hauetatik txikiena izango da:

- Bizitegi zenbaketari dagokionez Euskal Herriko Autonomi Erkidegorako Lurralde Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituen Dekretuaren aldaketa onartzen duen urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretutik aplikagarri dena (44 etxebizitza Etxebarriko kasuan).
- LZPk markatzen duena (102 etxebizitza udalerrri honentzat).

Beraz, HAPOk bizitegi-ahalmena bizitegi zenbaketari dagokionez LAA-k aldatzen dituen 4/2016 Dekretuan ezarritako kalkulutik datorren kopurura egokitu beharko du.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

Eskertzen dira txostenaren ekarpenak EHLABren txosten izapidean azalduko diren irizpideen aurrerakin moduan. Hala ere esan behar da bertan antolaketa xehatuko etorkizuneko zehaztapenei buruzko zenbait espekulazio egiten direla, eta hauek bere egileen buruan daudela soilik. Bere xehetasunei buruz, ondokoa esan behar da:

1- Lurzoru urbanizaezineko zehaztapenei dagokionez.

HAPOean jasotako lurzoru urbanizaezineko kategorizazioan zuzenean islatu da LAAetako eta nekazaritza-basogintzako LAPeko kartografia, Eusko Jaurlaritzako oinarrietatik. Araudiaren aurrerakinak aurkibide bat zekarren soilik eta eztabaidarako zen, eredu malgu edo eredu zorrotz baten artean.

2- Lurzoru urbanizagarriko zehaztapenei dagokionez.

a) Lurzoru urbanizagarri industrialak: ez dago ezer esateko.

b) Bizitegirako lurzoru urbanizagarria: hurrengo puntuan komentatuko da.

c) “Eskola berriko gunea” izendatzen den sektorea: ez da sektore bat eta une horretan (2016ko abendua) zegoen mugaketa marraztu zen; beharrezko aldaketak egin dira dokumentu honetarako.

3- Hiri-lurzoruko zehaztapenei dagokionez.

Aurrekinaren moemorian hazkunde hautabideak deskribatzen diranean azalera eta etxebizitza kopurua zenbatzen dira hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriarentzat.

Hiri-lurzoruaren (finkatua ala ez) eta lurzoru urbanizagarriaren sailkapen zehaztapenerako Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 11. eta 14. artikuluen zehaztapenak jarraitu dira.

4- Bizitegirako zenbaketari dagokionez.

LAAk aldatzen dituen urtarilaren 19ko 4/2016 Dekretuak ez du 5. artikulurik, hiru bakarrik baititu, hurrenez hurren, jatorrizko testuaren (28/1997 Dekretua) 5. artikulua ezabatu, 7. artikuluari titulu eta idazkera berria eman eta I. Eranskinari idazkera berria ematen diotenak. Txostenak aipatu nahi duena bada 7. artikuluko 5. puntua, bere idazkera berrian, "lurzoru urbanizagarri osoa" idazkera ez da testuan agertzen, beraz, ez dago arau-erreferentzi zuzenik txostena egiten duen interpretazioa oinarritzeko, hau da, halaber beharrez egin behar dela proposatutako sektorizatu gabeko lurzoruaren etxebizitzaren zenbaketa. Azpimarratu behar da 2/2006 Legeak (LAAk baino maila ierarkiko altuagoa duena eta EAEn hirigintza arloan berebiziko arau dena) bere 53.3 artikuluan ez duela ezartzen sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarrian hirigintzako eraikigarritasuna finkatzeko derrigortasuna (bai exijitzen du, ordea, artikuluko bereko aurreko puntuan sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriarentzat), eta hori da beharrezko parametroa finkatu ahal izateko, era orientagarrian bada ere, etxebizitza kopurua (izan ere, EHLHLk, aurreko estatuko legediak ez bezala, uko egin zion dentsitatea etxebizitza kopuruaren arabera neurtzeko, parametro aldakorra baita etxebizitzaren tamainaren arabera). Hori dela eta, uste dugu fundamentu gutxiak eta hirigintza legezkotasunarekin lotura gabekoa dela txostenean egiten den kalkulua Aurrerakinaren ustezko bizitegi-eskaintzari buruz. Hala ere, imajinatzen dituen kopuru osoak erabiliko ditugu (136 edo 203 etxebizitza, hautabidearen arabera) erantzun honen hurrengoko argudiorako.

La imposición de que el número máximo de viviendas previsto por el PGOU sea, con carácter vinculante, el menor de los que resulten de la aplicación de la modificación de las DOT (en vigor desde el 9 de febrero de 2016, que establece 39 viviendas en el caso de Etxebarria) y el que marque el PTP de Gernika-Markina (en vigor desde el 19 de mayo de 2016, que establece 102 viviendas) que se recoge en el informe carece de sustento legal. Además, en el propio texto de modificación de las DOT tiene su excepción en el punto siguiente cuando dice:

HAPOean aurreikusitako gehieneko etxebizitza kopurua LAAen aldaketaren aplikaziotik (2016ko otsailaren 9tik indarrean, eta 39 etxebizitza ezartzen dituen Etxebarriaren kasuan) eta Gernika-Markina LZPk esandakoaren artean (2016ko maiatzaren 19tik indarrean, udal berearentzat 102 etxebizitza ezartzen dituen) txikiena era loteslean izateko beharra inposatzea, txostenan jasotzen den moduan, ez du legezko oinarririk. Gainera bere salbuespena dauka LAAen aldaketa bereko testuaren hurrengo puntuan dion bezala:

b) Onartutako plangintza egokitu arte, udal-plangintza berrikusteko prozesuetan, baldin eta indarreko plangintzaren bizitegi-ahalmena aldaketa honetako irizpideetatik ateratzen dena baino handiagoa bada:

1.- Ahalmen handiagoa errespetatu ahal izango da, birgaitzeko, berritzeko edo hiri-lurzorua bir-dentsifikatzeko jarduketetatik ateratzen denean, indarreko plangintzaren ahalmena gainditu gabe.

2.- Lurzoru urbanizagarriari dagokionez, indarreko plangintzak onartutakoa errespetatu ahal izango da, baldin eta behar bezala justifikatzen bada hirigintza-garapena edo plangintzaren gauzatzea kontuan izanda; hala ere, kasu horretan, ez da onartuko berriz sailkatzea lurzoru urbanizaezina hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa.

Uste dugu Etxebarriko HAPO aurreko kasuen barruan dagoela, AS-etatik 68 etxebizitza egin gabe daudelako (gehienak porrot egindako Bizkarra sektorean, juridikoki egikaritu, baina urbanizazio eta eraikuntza bukatu gabe dituen). HAPOren tramitazioa dokumentu bakoitza sustatzen duten administrazioen (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) arteko une eta erritmoen gainjartzeak udal plangintzan eragindako ziurgabetasunarekin aurkitu da. Horrek ondokoa eragin du: bizitegi kalkulurako erreferentzi zuzena den dokumentua (LZP) herrialde osoko gidalerroak markatzen dituen goi mailako beste baten (LAAk) ondoren onartu da. Beraz, errespetu osoz txostena egiten duen organoarenik, uste dugu bere irizpidea berraztertu behar duela.

Esan behar da azkenik LAA berrietatik (128/2019 Dekretua) 44 etxebizitzako gehieneko eskaintza bat ateratzen dela, eta hauen barruan ez dagoela zertan zenbatu AS-en Bizkarra sektorean erdiz-erdi geratu direnak. Beraz, HAPO honen eskaintza erabat arrazoizkoa eta legezkoa da.

2.- Administrazio eta beste erakunde batzuegandik jasotako erantzunak.

Izapide honetan jasotako erantzunak ondoko hauek dira:

2.1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Zuzendaritza Nagusia.

Kultura ondare higiezin arkitektonikoari dagokionez, ondasun arkitektoniko kalifikatu edo inbentariatuak claudela baieztatzen du (kontraesan bat dago gaztelerazko bertsioarekin, harek ez daudela baitio). Ustezko gune arkeologikoak daudela baieztatzen du ere. Euskal Kultura Ondareko Zentroari kontsulta egitea gomendatzen dute.

2.2.- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

Lurzoru Urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez ondokoa adierazten dute:

- Informazio urria ematen dela lurzoru urbanizaezina antolatzeko proposamenari buruz.
- Zuhaitz masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasuneko habitatak (egun gehienak Baso kategorian) babes bereziko kategorian sar daitezela.
- EAEko espezie mehatxatuen katalogoan sartutako fauna eta flora espezieak identifikatzen den eremu eta habitatak lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari gainjarritako baldintza gisa jaso daitezela, balta ibai-ibilguak eta ur-ipurtatsa kudeatzeko eremuak ere.
- Arno eta Urdaibaiko artadi kantauriarrak lotzeko korridorea gainjarritako baldintza gisa sar dadila.

Proposatutako hirigintza garapenei dagokienez, hauxe aipatu dute:

- Kontuan hartu beharko direla Bizkaiko Foru Aldundiak ur-ipurtatsaren kudeaketari buruz ezarritako baldintzak, proposatutako bizitegi-garapenak Erberako eremuan claudelako, espeziearen interes bereziko eremuan sartzen diren errekekin muga eginez.
- Nemark eremurako sarbidearen egoera argitu behar da, aurreko espedientean baztertuta baitzegoen.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

Lurzoru Urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez:

- Informazio osoa ematen da LUEren antolaketa proposamenari buruz, txostena egiten duen organoaren sailak sustatutako LZP baita.
- HAPOk ez dauka legez zertan hartu zuhaitz masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasuneko habitatak (egun gehienak Baso kategorian) babes bereziko kategorian sartzeko beharra alde haurretik hala ez badu egin horretarako ardura duen plangintza sektorialak, hau da, nekazaritza-basogintzako LZPk, dagokion unean uneko lanaren ondoren.
- Ez da aipatzen zein den legezko arau oinarria EAEko espezie mehatxatuen katalogoan sartutako fauna eta flora espezieak identifikatzen den eremu eta habitatak lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari gainjarritako baldintza gisa jasotzeko.
- Arno eta Urdaibaiko artadi kantauriarrak lotzeko korridorea "Korridore ekologikoak" gainjarritako baldintza barruan sartu da (araudiko 5.11 artikulua).

Proposatutako hirigintza garapenei dagokienez:

- Kontuan hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiak ur-ipurtatsaren kudeaketari buruz ezarri ahal ditzaken baldintzak, aplikagarri diren eremuetan.
- Ez da HAPO honen eginkizun argitzea bere aurreko hirigintzako espedienteen egoera.

2.3.- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

Ondokoa adierazten du:

- Aurrerakinaren ingurumen dokumentuak eraginda gerta daitekeen kultura ondarea jasotzen duela, kultura onclausun izendatutako elementuak, izendatzeko proposatutakoak eta udal plangintzak babesteko proposatutako ondasun higiezinak jasoz.
- Ez dela elementu bakoitzarentzat proposatzen den babes-araubidea aipatzen eta, beraz, erantzunean eranskin bat sartu da, Etxebarriako HAPOren kultura ondarearen katalogoan sartutako elementuentzako babes-araubideari buruzko preskripzio eta gomendioekin.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

Kultura ondareari dagokionez Aurrerakinean sartutako dokumentuaren xedea zen (eta adierazten zen argi eta garbi) bere inbentario bat egitea eta bere egoera islatzea indarreko AS-en eta Euskal Kultura Ondarearen katalogoaren ikuspuntutik. EZ zen katalogo bat berari dagozkion babes-araubideekin, izan ere, begi bistakoa denez, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean araututako tramitazio fase bakoitzaren edukien eskema jarraituz hori une honetan gauden faseari baitagokio, hau da, Plan Orokorra bera idazten denean. Txostenean jasotako baldintza eta gomendioak kontutan hartu dira katalogo hori egiterako orduan.

2.4.- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

Ondokoa adierazten du:

- Aurretik plangintzaren beste xedapen aldaketa batzuen esparruan (ikastetxe publikoa, Nemark eremua eta Fagor Arrasate S.Koop. eremua) adierazitako baldintzak ez direla kontuan hartu aurrerapen dokumentuan. Proposamen batzuek balio estrategiko handiko lurzorua okupatzeko dituzte eta, beraz, ezinbestekotzat jotzen da nekazaritza sektorearen gaineko ebaluazio zuzena, nekazaritzaren arloan eskudun den foru organoaren derrigorrezko txostenaz gain.
- Egokitzen jotzen dela nekazaritza sektorearen gaineko eraginaren ebaluazioa, nekazaritza eta basogintzako lurralde plan sektorialean horretarako ezarritako protokoloa aplikatuz, nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriako lurzoruen gaineko eragin ehuneko handiak kontuan hartuz.
- Lurzoru urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak eraikitzeke baldintzei dagokienez, indarreko nekazaritza eta basogintzako lurralde plan sektorialaren 11., 12. eta 13. artikulua bete beharko direla, hurrenez hurren.
- Gaur egun dauden abeltzaintza ustiapenak edo sortuko direnak indarrean dagoen araubidea bete beharko dutlae (515/2009 Dekretua eta 165/1999 Dekretua).

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRAK:

- Plangintzaren beste aldaketa batzuen barruan (ikastetxe publikoa, Nemark eremua eta Fagor Arrasate S.Koop. eremua) adierazitako baldintzapenak ez ziren kontutan hartu Aurrerakin dokumentuan arrazoi honengatik: onartu gabe zeuden oraindik. Proposamen batzuek nekazaritza-basogintzako LAPean balio estrategiko altu bezala kategorizatutako lurzoruen zati txiki bat okupatzen dute eta nekazaritzarako eregin sektoriala minimoa da. Gertakizun hau kontutan hartuta egin beharko du nekazaritza ardura duen foru organu eskudunak LAPren 64.2 artikuluan aurreikusitako txostena.

INGURUMEN MEMORIA PLANAREN PROPOSAMENETAN TXERTATZEAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

- Araudian kontutan hartu dira LAPean nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategorientzat ezarritako zehaztapenak. Erabilera publikokomendiak gainjarritako baldintzapen bezala arautu dira (5.6 artikulua).
- “Planak aplikatzea eta obra eta jarduerak gauzatzearen eragin sektorialaren ebaluazioa”ri buruz LAPk ezarritakoari dagokionez, metodologi bat gehiago da, erredaktore-taldeko kideek erabilitakoa bezain baliogarria (izan ere, kontutan izan da). Gogora erazi behar da D dokumentua I. Eranskina, LAPren jarduketa tresnak, non txostenean aipatutako protokoloa dagoen, ez zela argitaratu EAAn. Beraz, bere lotesletasun maila zalantzarik da. Nekazaritza-basogintza eta landazabala kategoriako lurzoruekiko eragina ez da handia, baizik ere oso murriztua.
- Gogora erazi behar da Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 17.5 artikulua ezarritako arauen ierarkia printzipioa. Honek ezartzen du lurralde zatiko plangintzaren zehaztapenak (kasu honetan, Gernika-Markina eskualde-egiturako LZP, hain zuzen, HAPOean islatu dena) arloko lurralde plangintzaren gainetik daudela (kasu honetan, nekazaritz-basogintzako LAPren gainetik).
- Plan Orokorraren araudian aipamen asko egiten zaizkio aplikagarri izan daitekeen araudi sektorialari. Ez da hirigintzako teknika on bat arau zehatzak aipatzea, esateko 515/2009 Dekretua edo 165/2009 Dekretua, erraz suertatu baitaiteke aldatuak izatea, indargabetuak edo ordezkatuak Plana ematen duenez indarrean egongo den hurrengoko bi hamarkadetan. Gainera, aipatutako dekretu bietatik, 515/2009-k ez du jasotzen bere artikuluetan edo eranskinetan nahitaez bere zehaztapenak udal plangintzan jasotzearen beharra, eta 165/1999 indargabe geratu da barne merkatuko zerbitzuei buruzko Europar Legebiltzar eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/CE Direktiba egokitzeko zenbait lege aldatzen dituen apirilaren 23ko 7/2012 Legeaz.

2.5.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Irakaskuntza ekipamenduari dagokionez, aurrerapenak ikastetxe publiko bat jartzeko arau subsidiarioen xedapen aldaketa jasotzen duela dio bere erantzunean.

2.6.- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

Etxebarriko udalerrian babes zibileko arriskuei buruzko informazioa bidaltzen du. Araubide sektorialari buruzko zenbait ikuspegi adierazten ditu eta ondokoa zehazten du:

- Uholde-arriskua: arloko araudi eta planak aipatu ondoren, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholde orbanak identifikatzen ditu Urko, Ibarrolatzaerreka eta Muniberreka ibaien inguruan eta deskribatutako eremu batzuk lehentasuneko fluxu aldean daudela dio; adierazten du ere eremuko prezipitazio isomaximoa 225-275 mm/egunekoa dela 500 urteko itzuli-aldirako eta, beraz, dreinadura obra guztientzat kontutan hartu beharko dela datu hau.
- Arrisku sismikoa: V intentsitate gunean kokatzen dela dio; hala ere, eraikuntza berrietan kontutan izango da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretu bitartez onartutako lurrikaren aurkako Eraikuntza Araua: parte orokorra eta eraikuntza (NCSR-02).
- Baso-sute arriskua: Eusko Jaurlaritzaren arriskuei buruzko kartografia aipatzen du eta adierazten du kontutan hartu beharko direla Euskal Autonomi Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak Autobabes Planak egiteko beharrari dagokionez suteak izateko arrisku handiko eremuetan edo hiri edo baso interfazeko esparruetan, eta baita kanpatze instalazioei dagokiona, hurrenez hurren.
- Teknologi-arriskuak: merkantzia arriskutsuen garraio-arriskuari dagokionez, adierazten du merkantzia arriskutsuak zeharkatu dezaketen bidea BI-623 errepidea dela, udalerriko ipar-mendebaldean, eta komenigarritzat jotzen du komunikazio bideen aldaketetan kontutan

hartzea larrialdi-ibilgailuen joan etorriak errazteko ekimenak. Seveso III araudiari dagokionez (sustantzia arriskutsuekin lotutako istripu larrien arriskua) ez da adierazten inolako araudi honen menpeko establezimendurik.

Azkenik, arlo honetan euskarri den dokumentazio tekniko eta juridikoaren zerrenda bat egiten du.

2.7.- IHOBE.

Ondokoa informatzen du: dokumentazioan zuzen jasotzen dela lur-zati batzuetan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak egin izan direla, bai lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan aipatzen direnak, bai hori eguneratzeko zirriborroan agertzen direnak. Udalerrian inbentariatutako lurzatiei buruzko dokumentazioa erantsi da. Horregaitik, txostenak dio Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoaren arabera, lurzorua kalitatearen aitortzen bat bideratu beharko dela lege horren 23. artikuluko egoeretako bat gertatzen denean, adibidez, kutsatuta egon litezkeen lurretako instalazioak edo kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen kalifikazioa aldatzea Horretarako. leku horretan edozein esku-hartze egin baino lehen, lurzorua kalitatearen ikerketa bat eta utzitako hondakinen, eraikinen eta induskatutako lurren kudeaketa egokia egitea eskatu daiteke.

2.8.- Red Eléctrica de España.

Hauxe adierazten du:

1.- Udalerriak 400 kilowatteko argindarra garralatzeko Azpeitia-Gatika alreko linea doala.

2.- Haren linea edo instalazioen gaineko eragin orok aplikatu behar zaizkien erregelamenduetan nahiz 1955/2000 Err3e Dekretuaren 153., 154. eta 162.3 artikuluetan ezarritako baldintzak bete behar dituela. Halaber, jarduera jakinetarako baldintza teknikoak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa emateko eskatzen dute.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA: en la normativa se hace una referencia genérica a las normativas sectoriales en vigor, puesto que estas son numerosas y resulta prácticamente imposible, además de poco práctico, integrarlas todas en el articulado.

2.9.- Dirección General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Foru bide sistema orokorreari dagokionez, informatzen du dokumentuak era egokian jasotzen dituela foru-errepideak, bereizketa eginez foru bide sistema orokor eta udalaren sistemen artean.

Aldundiaren eskumen diren sarean aurreikusitako ekintzei dagokionez, ondokoa informatzen du: planak Gernika-Markina LZPeko esku-hartze irizpideak jasotzen dituela eta adierazten du planaren aurrerantzeko bertsioek xehetasun gehiagoz jaso beharko dela dokumentazio grafiko eta idatzian egiteke dauden ekintzak.

Foru bide-sarearekiko hiri-garapenen afekzio sektorialeiei dagokionez, ondokoa informatzen du: planean hautatutako hautabidea, hirigintza aurreikuspenei dagokionez, udal bideen afekzio banda barruan dagoela, Fagor-Arrasate industriagunean planteatutako aldaketa kenduta. Azken hau zenbait alditan informatu du Sailak, azkenengo aldiz EHLAB izapidean (2018ko abenduaren 17ko idatzia). Azkenik dio zentzu honetan ez diola eragozpenik jartzen HAPOean aurreikusitakoari.

Ez dio eragozpenik ikusten dokumentuan planteatutako bidegorriari eta Markinarekin loturarekin, nahiz eta ez dauden egun idazten ari den Bizkaia egituratuko duten ardatz egituratzaileen barruan etorkizuneko Bizkaiko bizikleta-bideen LAPean.

2.10.- Agencia Vasca del Agua - URA.

Aurrekariak adierazten ditu lehenik eta behin eta Planaren edukien laburpen bat egiten du ur arloari dagokionez. Ondorio bezala prozeduraren hurrengoko faseetarako, ondokoak jasotzen ditu:

1.) Saratsibar erreka estalita doa planteatutako hazkunde hautabide bietan jasotako bizitegi lurzorua handitzerako proposatutako guneetariko batetik. Gune honetan aztertu beharko da lurperatutako ibilgua irekitzearen aukera. Antolaketa planoek eta eremu bien fitxek ibilguen trazatua jaso beharko dute, lurperatutako erreka barne, ur arloko araudian ezarritako baldintzapenekin, bereziki urbanizazio eta eraikinen aldentzeak.

2.) HAPOeko planoek ertz bietan jaso beharko dute gaur egungo uholde-arriskua hirigunean Ukaregi erreka estalita irekitzearen uholdeen aurreko hobekuntza eta ingurumen berreskurapenerako proiektuko obrak egin ondoren.

3.) Uholde-arriskuari dagokionez, garapen-proposamenek Kantauri Ekialdeko Mugaketaren Plan Hidrologikoko 40 eta 41 artikuluko zehaztapenak bete beharko dituzte. Bereziki A04 eta A05 eremuak.

4.) Kontutan hartu beharko da HAPOean urbanizatu beharko gune berrietan dreinatze iraunkor sistemen kokapena, Plan Hidrologikoko 44.1 art. eta Jabari Publiko Hidraulikoaren 126 ter artikuluan ezarritakoa jarraituz.

5.) Hornidurari dagokionez, Agentziak baliabideen nahikotasuna eta eskuragarritasunari buruzko bere beharrezko erabakia eman dezan beharrezkoa da HAPOren dokumentazioan proposatutako hirigintza-garapenak hornitzeko beharrezko eskaera berrien estimazio bat egitea. Era berean, HAPOean alde aurretik dauden sare eta azpiziturak jaso beharko dira eta, hala balitz, aurreikusitako berriak.

6.) Saneamenduari dagokionez, hiri-lurzorua garatzeko aurreikuspen guztiak (bizitegi zein industrial) saneamendu sare orokor batera lotu beharko dira, hondakin uren isurketarik egin gabe jabari publiko hidraulikora. Eskatu ahal izango da alde aurretik egokitzea, beharrezkoa balitz, sistemaren ahalmena. Gainera HAPOk bere dokumentazioan jaso beharko ditu egungo eta etorkizuneko sareak.

7.) Azkenik, beharrezkoa da HAPOko dokumentazioak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoko txosten bat sartzea dauden hornidura eta saneamendu azpiegituren ahalmena justifikatuz edo, hala ez balitz, beharrezkoak diren jarduketak. Hau balitz kasua, HAPOk azpiegitura horien hobekuntza aurrekusi beharko du eta bere planifikazio eta finantzaketa sartu ekonomi-finantza bideragarritasun eta ekonomi-iraunkortasun memorian.

ERREDAKTORE TALDEAREN OHARRA:

1.) Saratsibar erreka estalita doa tarte baten orain dela hamarkada asko eta alde batera utzi da lurperatutako ibilgua irekitzea, ez baitu suposatzen hobekuntza hidraulikorik eta ekonomikoki bideraezina delako. Antolaketa planoek ibilguen trazatua jasotzen dute. URAK ez du nahiko arrazoitu lurperatutako erreka estalita irekitzearen legezko oinarria hau bere kartografi sektorialean ez dagoenean behar den bezala marraztua. Ur arloko araudian ezarritako baldintzapenak errespetatu dira, bereziki urbanizazio eta eraikinen aldentzeak.

2.) HAPOeko planoek ertz bietan jasotzen dute gaur egungo uholde-arriskua GeoEsuskadi IGS-n URAK bolkatutako kartografia jarraituz. Lan-talde honek ez dai URAK bere beharra bete duen, hau da, Ukaregi erreka estalita irekitzearen uholdeen aurreko hobekuntza eta ingurumen berreskurapenerako proiektuko obrak egin ondorengo kartografia eguneratzea.

3.) Garapen-proposamenek Kantauri Ekialdeko Mugaketaren Plan Hidrologikoko 40 eta 41 artikuluko zehaztapenak bete beharko dituzte, uholde arriskua duten guneen erabilerei dagokionez.

4^o) HAPOren urbanizazio ordenantzetan (URA menpe duen Eusko Jaurlaritzaren ereditutik hartuak) urbanizatu beharko gune berrietan dreinatze iraunkor sistemen kokapena kontutan hartu da.

5º) Hornidurari dagokionez, HAPOren dokumentazioak zehaztu eta zenbatzen ditu eskaera berriak etxebizitza berritan eta, jarduera ekonomikorako erreserbako lurzoruan, gutxi gorabeherako sabaiean. Era berean, aldez aurretik dauden sare eta azpieteturak jasotzen ditu eta, aurreikusitako berriak.

6º) Saneamenduari dagokionez, hiri-lurzorua garatzeko aurreikuspen guztiak (bizitegi zein industrial) saneamendu sare orokorrera lotzen dira, hondakin uren isurketarik egin gabe jabari publiko hidraulikora. Gainera HAPOk bere dokumentazioan jasotzen ditu egungo eta etorkizuneko sareak.

7º) Azkenik, Planaren hasierako onarpenaren ondoren, Udalak eskatuko dio Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoari txosten bat ematea dauden hornidura eta saneamendu azpiegituren ahalmena justifikatuz edo, hala ez balitz, beharrezkoak diren jarduketak. Hau balitz kasua, HAPOk azpiegitura horien hobekuntza aurreikusiko du eta bere planifikazio eta finantzaketa sartu ekonomi-finantza bideragarritasun eta ekonomi-iraunkortasun memorian.

5. KAPITULUA.- INGURUMEN MEMORIA.

Jendaurreko erakustaldiaren ondoren, eta alegazioei buruz ebatzita, Plana, bere ingurumen azterlan estrategikoa eta espedientearen kopia, ukitutako administrazio eta erakundeen txostenekin batera, ingurumen organoari (Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Saila) bidaliko zaio ingurumen memoria edo ingurumen-adierazpen estrategikoa eman dezan bi hilabeteko epean.

Bere edukia kontutan izango da Planaren behin-betiko onarpeneko dokumenturako.

6. KAPITULUA.- AZKEN ONDORIOA.

Hautatutako alternatibaren balorazioa ingurumen-dokumentuan agertzen da.